# Zurriolako Ataria

63. alea — 2019-05-31

## Erakusketa ibiltaria Ategorrietan



Aste honetan Hurran ikusgai izan den 50. urteurreneko **Argazki Erakusketa** Ibiltaria Ategorrietako sikomotrizitate gelan kokatuko da. Kontutan hartu ikusleak aukera izango du argazki bakoitzak iradokitzen edo gogorarazten diona idatziz adierazteko.

## Olatu Talka 2019




Larunbatean, 6. Dantza Topaketa antolatu du **Zurriola Musika eta Dantza Eskolak** Boulevardeko plazan 12:00etan.
Aurtengo 6. Zortziko saria Marian Arregi eta Juan Antonio Urberltzek jasoko dute.

## HH4koak Urgullen



HH4 urtekoak, ostegunean, Urgull mendian izan ziren. Argitxo bidelagun izan zuten eta Boulevardeko kioskoan izozki bana jatera gonbidatu zituzten!

## Bela ikastaroa DBH2n



Aurten ere DBH2ko ikasleek belako 4 saio burutu dituzte RCNSS klubarekin. Portura patinetan abiatu dira eta han bertako begiraleek belauntzi batean nabigatzeko behar diren oinarrizko ezagutzak eman dizkiete. Giro bikaina izan dute orokorrean eta oso ondo pasa dute!

## Piraguismo ikastaroa DBH3n



RCNSSren eskutik piraguismoko saio paregabeak izan zituzten gure DBH3ko ikasleek. Itsasoaren haserrea zela eta batzuk busti baziren ere, orokorrean oso gustura ibili ziren eta beraien arteko giroak horretan lagundu zuen.




2019/20 ikasturteko liburuen informazioa eta eskaerak burutzeko galdetegiak dituzue bertan.
**DBH1eko gurasoentzat:** Liburu salmentaren antolaketa.
**BATXILERGOA:** Merkatu txikia. Ekainak 12. Saldu eta eros daitezkeen liburuak.




Zurriola Ikastolako eskolaz kanpoko jardueretan izena emateko azken eguna: **maiatzaren 31**.



Ikastolako 50. urteurrena dela eta, Ategorrietako Zuhaizti ikastetxean **Zurriola Musika eta Dantza**ko ikasle-irakasleek emanaldi ederra eskaini zuten.

## Lanerako izangaien datutegia



Zurriola Ikastola lanerako izangaien datutegia berritzen ari da. Esteka honen bitartez, datuak bidal daitezke (*Curriculum Vitae* eta bestelako datuak).

## OHARRAK / AGENDA:

- **HH eta LH:** Guraso bilera orokorrak. Datak, orduak eta lekuen zehaztapena.
- **HH2:** Ekogunea. Goiz pasa. Ekainak 3. 9:00etarako etorri.
- **HH eta LH:** Ekaineko antolaketa. Zirkularra. LH3-4ko baimena. LH5-6ko baimena.
- **LH3:** Baserria Zugarramurdi. Ekainak 3-5. Zirkularra.
- **LH4:** Baserria Lizarra. Ekainak 3-5. Zirkularra.
- **LH5:** Baserria Sastarrain. Ekainak 3-5. Zirkularra.
- **LH6:** Baserria Zuhatza. Ekainak 3-5. Zirkularra.
- **DBH1:** Uliara irteera Aranzadikoekin. Ekainak 4. Egun pasa. Bazkaria etxetik ekarrik.
- **DBH2:** Mimarte. Alkoholaren prebentzioa. Ekainak 3.
- **DBH3:** Sexu heziketa eta indarkeria matxistaren prebentzioa - Ekainak 4. Ireki begiak - Ekainak 5.
- **DBH4:** Ireki begiak - Ekainak 6.
- **BATXILERGOA:** Gurasoentzat egutegia. Batx1. Batx2.
- **BATXILERGOA 2. maila:** Agurra. Ekainak 7. 19:00.
- **Jangela:** Ekaineko menua.
- **Zurriola Antzerki Eskola:** Ikasleen emanaldiak. "Kontsulta eroa bostetan" - Ekainak 3 (17:00) eta Ekainak 5 (18:00). "Inprobisaketak" Joserra - Ekainak 4 eta 6 (18:00). "Inprobisaketak" Mikel - Ekainak 7 (18:00).
- **Zurriola Musika Eskola:** Udaberri musikatua. Programazioa.
- **Zurriola Kirol Elkartea:** Batzar berezia. Ekainak 11. Deialdia.
- **Zurrimendi:** Ekaineko irteera.
- **Aisialdiko jarduerak haurrentzat:** Maiatzak 31-Ekainak2.
- **Parketarrak:** Egunik onenak elkarrekin jolasean.







**ZURRIOLA IKASTOLA IKE**
Indianoene, 1 - 20013 Donostia.
943 272 587